

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ARRATZUA-UBARRUNDIAKO UDALA

Arratzua-Ubarrundia udalerriko kontzejuei obrak egiteko dirulaguntzak ematea arautzen duen ordenantzaren aldaketa behin betiko onartzea

Hasierako onespeneraren iragarkia 2023ko martxoaren 8ko 28 zenbakiko ALHAOn argitaratuta, eta aipatutako espedienteari alegaziorik egin ez zaionez, osorik argitaratu da, indarrean sar dadin.

ARRATZUA-UBARRUNDIA UDALERRIKO KONTZEJUEI OBRAK EGITEKO DIRULAGUNTZAK EMATEA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA

1. artikulua. Dirulaguntzen helburua

Ordenantza honen bidez, udalerriko kontzejuei obrak egiteko dirulaguntzak emateko baldintzak ezartzen dira.

2. artikulua. Onuradunak

Dirulaguntza hauen onuradun izango dira dirulaguntzen helburu diren obrak egingo dituzten udalerriko kontzeju guztiak.

3. artikulua. Diruz lagungarri diren obrak

Obra eta zerbitzuen foru planaren edo obra txikien programaren barruan dirulaguntza duten obrak baino ez dira diruz lagunduko.

4. artikulua. Dirulaguntzen zenbatekoa

4.1 Obra eta Zerbitzuen foru planak eta obra txikien programak diruz lagundutako obrek, aipatutako planetatik ehuneko 80ko dirulaguntza badute, Foru Aldundiak diruz laguntzeko modukotzat jo duen aurrekontuaren ehuneko 10eko dirulaguntza jasoko dute, eta kostuaren ehuneko 50ekoa aldundiak diruz lagundu ez duen zatiaren kostuaren ehuneko 12.000,00 euroko mugarekin.

4.2 Obra eta zerbitzuen foru planeko eta obra txikien programako obrek, ehuneko 80tik beherako dirulaguntza badute, kontzejuak ordaindu behar duen zenbatekoaren ehuneko 50eko dirulaguntza jasoko dute, 12.000,00 euroko gehieneko dirulaguntzarekin.

Muga hori 50.000,00 eurokoa izango da oinarrizko azpiegiturei eragiten dieten obren kasuan (argiteria, elektrifikazioa, ur-hornidura, saneamendua, telefonia, zuntz-, gas- eta zoladura-instalazioa), bai eta kontzeju-aretoak eta sarbide publikoko gizarte-zentroak eraikitzeari edo handitzeari eragiten diotenen kasuan ere.

4.3 Proiektua idazteko, zuzentzeko eta ikuskatzeko ordainsari teknikoetarako edo dirulaguntzaren xede diren obrak gauzatzeko beharrezkoak diren beste edozeinetarako, ehuneko 40ko dirulaguntza ezartzen da.

4.4 Obra eta inbertsioetarako dirulaguntzen mugak:

Kontzeju bakoitzak ezin izango du urte eta/edo obra bakoitzeko 90.000,00 euro baino gehiago lortu. Obra bera dela ulertuko da jarduketa baten barruan hainbat urtetan edo fasetan egiten dena.

Oinarrizko azpiegiturei (argiteria, elektrifikazioa, ur-hornidura, saneamendua, telefonia, zuntz-, gas- eta zoladura-instalazioa) eta kontzeju-aretoak eta sarbide publikoko gizarte-zentroak eraikitzeari edo handitzeari eragiten dieten obren kasuan, aurreko muga 150.000,00 euroraino igoko da.

Kontzejuak dirulaguntzaren xedearen kostuaren ehuneko 5 ordaindu beharko du gutxienez.

5. artikulua. Kontzeju onuradunen betebeharrak

- Dirulaguntza eskaera udalean aurkeztea, aldundiak dagokion dirulaguntza lortu ondoren.
- Dirulaguntza ordaintzeko eskabidea aurkeztea hilabeteko epean, aldundiak eta beste administrazio batzuek emandako dirulaguntzak likidatu eta gero.
- Urteko kontuak (gastuak, sarrerak eta izakinak kutxan) behar bezala onartuta eta Arabako Foru Aldundiak eskatutako formatuan aurkeztea, kontuei dagokien urtearen hurrengo urteko maiatzaren 1a baino lehen, edo erregelamendu bidez ezartzen den egunean.
- Udalarekiko zorrak ordainduta izatea eta Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean izatea.
- Azken hamar urteetan helburu bererako udalaren dirulaguntzarik jaso ez izana.
- Argiteria publikoko obrak badira, energia aurrezteko eta argi-kutsadura saihesteko beharrezko neurri guztiak hartu beharko dira.
- Obra berria egiteko edo kirol- edo gizarte-eraikinak edo -instalazioak birgaitzeko dirulaguntzak eskatuz gero, kontzejuaren konpromisoa aurkeztu beharko dute, alokatzeko ez erabiltzeko.
- Helburua betetzea, proiektua gauzatzea, jarduera egitea edo dirulaguntza emateko oinarri den jokabidea hartzea.
- Udalaren aurrean justifikatzea eskakizunak eta baldintzak betetzen direla, bai eta jarduera egin dela eta dirulaguntza emateko edo baliatzeko helburua bete dela ere.
- Kontrol-organo eskudunek egin beharreko egiaztapen-jarduketei men egitea, eta aurreko jardueretan eskatutako informazio guztia ematea.
- Jasotako funtsen aplikazioa justifikatzen duten dokumentuak gordetzea, dokumentu elektronikoak barne, egiaztapen- eta kontrol-jardueren xede izan daitezkeelako.
- Diruz lagundutako obraren finantzaketaren publizitate publiko egokia ematea.
- Dirua itzultzeko arrazoiren bat egonez gero, jasotako zenbatekoa itzuli beharko da.

6. artikulua. Eskaerak eta dokumentazioak

6.1 Dirulaguntzak jasotzeko, I eranskineko eskaera-ereduarekin batera, ondorengo dokumentazioa aurkeztu beharko da:

- Obra-lizentzia, alde aurreko komunikazioa edo erantzukizunpeko adierazpena, dagokionaren arabera.
- Dirulaguntza-eskaerak oinarri duen aurrekontua.
- Helburu bererako jasotako bestelako dirulaguntzak eman izanaren ebazpenen kopia.

6.2 Dirulaguntzak ordaintzeko, II eranskineko eskaera-ereduarekin batera, ondorengo dokumentazioa aurkeztu beharko da:

- Faktura.
- Jasotako beste dirulaguntzak zuritzeko dokumentazioa.

7. artikulua. Espedientea hastea eta bukatzea

7.1 Espedientea kontzejuak eskaera aurkeztean hasiko da.

Dokumentazioa osorik dagoela egiaztatu eta dagozkion txostenak egin ondoren, dagokion informazio-batzordera bidaliko da, irizpena eman dezan. Batzorde hori osoko bilkurara bidaliko da, eta horrek dagokion erabakia hartuko du eta eskaera egin duen kontzejuari jakinaraziko zai.

Ezingo da dirulaguntzarik eman aurrekontuko diru-izendapenik ez badago.

7.2 Espedientea amaituko da kontzeju onuradunak ordaintzeko eskaera 5. artikuluan ezarritako epean aurkezten duenean, beharrezko egiaztagiriekin batera.

Dokumentazioa osorik dagoela egiaztatu eta dagozkion txostenak egin ondoren, dagokion informazio-batzordera bidaliko da, irizpena eman dezan. Batzorde hori osoko bilkurara igorriko da, eta erabaki bakarra hartuko du urtean egiten den azken bilkuran, eta urte osoan kontzejuei emandako zenbatekoak ordainduko zaizkie.

8. artikulua. Itzulketa

Kontzeju onuradunak dirulaguntza jaso duen obra edo proiektua egin beharko du, eta dirulaguntza ematea eragin zuten jokabideak hartu beharko ditu bere gain, hartutako konpromisoak betez.

Bestela, jasotako zenbatekoak osorik edo zati batean itzultzeko eskatu ahal izango da, bai eta berandutze-interesa eskatzeko ere, dirulaguntza ordaintzen denetik itzulketa bidezkoa dela erabakitzen den egunera arte, eta Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorrean finkatutako zenbatekoan, Udal honek onartutako Dirulaguntzen Ordenantza Orokorrean adierazitako kasuetan, bidezkoak izan daitezkeen ekintza penalak alde batera utzita.

Dirulaguntzak itzultzeko arrazoiak izango dira:

- Dirulaguntza lortzea horretarako eskatzen diren baldintzak faltsutuz edo hori eragotzi dutenak ezkutatuz.
- Proiektua osorik edo zati batean ez betetzea edo dirulaguntza emateko oinarri izan den jokabidea ez hartzea.
- Justifikatzeko betebeharra ez betetzea edo behar bezala ez justifikatzea.
- Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean 18.4 artikuluan jasotako zabalkunde-neurriak hartzeko betebeharra ez betetzea.
- Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean aurreikusitako egiaztapen eta kontrol finantzarioko jardueri aurre egitea, aitzakiak jartzea, oztopatzea edo uko egitea, bai eta kontabilitateko, erregistroko edo dokumentuak kontserbatzeko betebeharrak ez betetzea ere, horren ondorioz ezin bada egiaztatu jasotako funtsak erabili direla, helburua bete dela edo beste edozein administrazio edo erakunde publiko edo pribatutatik helburu bererako lortutako beste diru-sarrera batzuk egiaztatu direla.
- Udalak ezarritako betebeharrak eta kontzeju onuradunek hartutako konpromisoak ez betetzea.
- Emandako dirulaguntzen zenbatekoa, bakarka edo beste administrazio edo erakunde batzuenarekin batera, egin beharreko obraren edo inbertsioaren kostuaren ehuneko 95 baino handiagoa bada, itzuli egin beharko da kostuaren gainean lortutako soberakina.
- Legean ezarritako beste edozein.

9. artikulua. Emandako dirulaguntza aldatzea

Dirulaguntza emateko ebazpena eman ondoren, kontzeju onuradunak haren edukia aldatzeko eskatu ahal izango du, baldin eta, dirulaguntza emateko kontuan hartutako baldintzak aldatzearen ondorioz, ebazpena aldatzea eragin dezaketen egoerak gertatzen badira.

Udalak aldatu egingo ditu, dagokion informazio-batzordeak txostena egin ondoren, betiere honako baldintza hauek betetzen badira, modu diskrezionalean aintzat hartuta:

- Aldaketa justifikatzen duten inguruabarrak ez egotea onuradunaren borondatearen mende.
- Dirulaguntza emateko kontuan hartu ziren baldintzak, elementuak edo inguruabarrak aldatu egin direla, eta, beraz, emandako dirulaguntza berrikusi egin behar dela.

Jarduera egiteko epea amaitu baino lehen aurkeztu beharko da aldaketaren eskaera.

10. artikulua. Ordainketa aurreratutako eta konturako ordainketak

Ez da aurreratutako ordainketarik edo konturako ordainketarik egingo, foru planean sartutako obretan izan ezik, horietan dirulaguntza ordaintzen joan ahal izango baita ziurtagiri partzialak aurkeztu ondoren.

11. artikulua. Arau-hausteen arduradunak

Dirulaguntzen arloko arau-hauste administratiboaren erantzule izango dira Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean arau-hauste gisa tipifikatutako kasuetan egitez edo ez-egitez parte hartzen duten administrazio batzordeko kideak.

12. artikulua. Erantzukizunetik salbustea

Lege horretan tipifikatutako ekintzek edo ez-egiteek ez dute dirulaguntzen arloko arau-hauste administratiboagatiko erantzukizunik ekarriko, honako kasu hauetan:

- Ezinbesteko kasuetan.
- Erabaki kolektibo baten ondorio direnean, botoa salbatu dutenentzat edo erabakia hartu zen bilerara joan ez direnentzat.

13. artikulua. Arau-hausteen eta zehapenen erregimena

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuan ezarritako araubidea aplikatuko da.

14. artikulua. Indarrean sartzea

Behin betiko onartutako ordenantza hau osorik argitaratuko da ALHAOn, eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 65.2 artikuluan ezarritako epea igarotakoan sartuko da indarrean.

Jendeak, oro har, horren berri izan dezan argitaratzen da.

Durana, 2023ko apirilaren 24a

Alkatea

M^a BLANCA ANTÉPARA URIBE



KONTZEJUEK OBRAK EGITEKO DIRULAGUNTZA ESKAERA

| | | | |
|---|--------------|--------------------|--------|
| KONTZEJUA | | IFK | |
| | | | |
| ORDEZKARIA (IZEN-ABIZENAK) | | NAN-AIZ-IFZ | |
| | | | |
| KOMUNIKAZIORAKO-JAKINARAZPENETARAKO DATUAK | | | |
| Kalea | Zk. | Solairua | Herria |
| | | | |
| Posta kodea | Udalerria | Lurraldea | |
| | | | |
| Posta elektronikoa | Telefono zk. | Mugikor zk. | |
| | | | |

Honi jakinarazi:
Honela jakinarazi: Interesduna Ordezkarria
 Posta Jakinarazpen elektronikoa

| |
|--|
| AZALTZEN DU |
| Honako programaren barruan: <input type="checkbox"/> Obra eta Zerbitzuen Foru Plana <input type="checkbox"/> Obra txikien programa |
| Dirulaguntza jaso duela, honako obra egiteko: Zenbatekoa: |
| Eta obrak egiteko dirulaguntzak arautzen dituen ordenantzako 5. artikuluan ezarritako betebeharrak guztiak betetzen dituela. |
| ESKATZEN DU: |
| Dagokion dirulaguntza ematea. |
| AURKEZTUTAKO DOKUMENTAZIOA (NAHITAEZKOA) |
| <input type="checkbox"/> Obren lizentzia <input type="checkbox"/> Aurrekontua <input type="checkbox"/> Beste dirulaguntza batzuk jaso badira, horien ebazpenen kopia <input type="checkbox"/> Beste administrazio edo erakunde batzuetan aurkeztutako dirulaguntza-eskaeren kopia |
| DATA ETA SINADURA: |

| DATUEN BABESAREN OINARRIZKO INFORMAZIOA | |
|--|---|
| Tratamenduaren arduraduna | ARRATZUA-UBARRUNDIAKO UDALA Uribea kalea, 12- 01520 - Durana (Araba) Tel.: 945 29 95 16 IFK: P0100900J |
| Tratamenduaren helburuak eta oinarri juridikoak | Udal mailako persona eta/edo entitateentzako diru-laguntzen kudeaketa integrala Tratamenduaren oinarri juridikoa tratamenduaren arduradunari aplikagarria zaion lege-eginbarra betetzeko beharra da |
| Hartzaileak | Datu pertsonalak hurrengoei lagako zaizkie: <ul style="list-style-type: none">• Diru-laguntzen datu-basean argitaratzea |
| Eskubideak | Interesdunak bere datuekiko irispide-eskubidea, datuak zuzentzeko, ezabatzeko bai eta horien tratamendua mugatzeko edo tratamenduari aurka egiteko eskubidea du Arratzua-Ubarrundiako udalaren helbidera komunikazio idatzia bidaliz bere nortasuna egiaztatzen dokumentuarekin edo Korporazioaren egoitza elektronikoa horretarako eskuragarri dagoen prozedura elektronikoa hasiz |
| Jatorria | Datuak hemendik lortu dira: <ul style="list-style-type: none">• Pertsona interesduna bera eta bere legezko ordezkaria |
| Tratamenduaren arduraduna | <ul style="list-style-type: none">• Web gunea: www.artzua-ubarrundia.eus• Telefonoa: 945 29 95 16 |

Arratzua-Ubarrundia Udala / Ayuntamiento de Arratzua-Ubarrundia - Uribea Kalea, 12 01520 – Durana (Araba)

**KONTZEJUEK OBRAK EGITEKO JASOTAKO DIRULAGUNTZA
ORDAINTZEKO ESKAERA**

| | | | |
|---|-------------------|-----------------------|--------|
| KONTZEJUA | | IFK | |
| | | | |
| ORDEZKARIA (IZENA ETA ABIZENAK) | | NAN-AIZ-IFZ | |
| | | | |
| KOMUNIKAZIORAKO-JAKINARAZPENETARAKO DATUAK | | | |
| Kalea | Zk. | Solairua | Herria |
| | | | |
| Posta kodea | Udalerria | Lurraldea | |
| | | | |
| Posta elektronikoa | Telefono zenbakia | Mugikorraren zenbakia | |
| | | | |

Honi jakinarazi:

Honela

jakinarazi:

Interesduna

Ordezkaria

Posta

Jakinarazpen elektronikoa

AZALTZEN DU

..... obraren lanak bukatu direla, eta Udalak horretarako honako zenbatekoa duen dirulaguntza eman duela:

ESKATZEN DU

Emandako dirulaguntza ordaintzea.

AURKEZTUTAKO DOKUMENTAZIOA (NAHITAEZKOA)

- Faktura
- Helburu bererako jasotako bestelako dirulaguntzak justifikatzeko dokumentuak.
- Hala badagokio, eskatutako beste dirulaguntzak ukatu izanaren erabakiaren kopia.

DATA ETA SINADURA:

| DATUEN BABESAREN OINARRIZKO INFORMAZIOA | |
|--|---|
| Tratamenduaren arduraduna | ARRATZUA-UBARRUNDIAKO UDALA Uribea kalea, 12- 01520 - Durana (Araba) Tel.: 945 29 95 16 IFK: P0100900J |
| Tratamenduaren helburuak eta oinarri juridikoak | Udal mailako persona eta/edo entitateentzako diru-laguntzen kudeaketa integrala Tratamenduaren oinarri juridikoa tratamenduaren arduradunari aplikagarria zaion lege-eginbearra betetzeko beharra da |
| Hartzaileak | Datu pertsonalak hurrengoek lagako zaizkie: <ul style="list-style-type: none">• Diru-laguntzen datu-basean argitaratzea |
| Eskubideak | Interesdunak bere datuekiko irispide-eskubidea, datuak zuzentzeko, ezabatzeko bai eta horien tratamendua mugatzeko edo tratamenduari aurka egiteko eskubidea du Arratzua-Ubarrundiako udalaren helbidera komunikazio idatzia bidaliz bere notasuna egiaztatzen dokumentuarekin edo Korporazioaren egoitza elektronikoki horretarako eskuragarri dagoen prozedura elektronikoa hasiz |
| Jatorria | Datuak hemendik lortu dira: <ul style="list-style-type: none">• Pertsona interesduna bera eta bere legezko ordezkaria |
| Tratamenduaren arduraduna | <ul style="list-style-type: none">• Web gunea: www.artzua-ubarrundia.com• Telefonoa: 945 29 95 16 |

Arratzua-Ubarrundia Udala / Ayuntamiento de Arratzua-Ubarrundia - Uribea Kalea, 12 01520 – Durana (Araba)